

ttipi-ttapa

1993.eko Apirilak 22

108. zenbakia

dohain banatzen da



Jose Luis ETXEGARAI:

«Maiztan bakarrik nago
eskualdeko bileretan»



BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

JAKINARAZTEN DA:

1.993.eko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratu behar direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

Ordaintzeko era:

Ordainketak banketxetan helbideratu ez dituztenak:

Abisuan agertzen den kontura ordainketa eginez edozein banketxetan abisua hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxetan helbideratuak dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea:

- 1.993.eko maiatzaren 31an bukatzen da.
- Ordaintzen ez bada, epea ekainaren 30a arte luzatuko da, %5aren errekarua aplikatzen ahal delarik.
- Epe hau pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20aren errekaruarekin kobratuko da.

Bortzirietan, 1.992eko apirilaren 6an
PRESIDENTEAK

1993 URTEKO TASAK

1992koen gain % 10a gehituz

ERABILTZAILEREN MOTAK ETA TASAK

Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez: 4.400 pezeta.

Zabor ontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak: 3.740 pezeta.

Zabor ontzira 500 metrotik gora dauden baserriak: 3.080 pezeta.

1.- Merkataritza ala zerbitzuak. Elikagaien eta elektragailuen sektorekoak ez direnak: Mertzuriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ileapaindegia, bulegoak...: 4.400 pezeta.

2.- Merkataritza. Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari dendak), elektragailu dendak eta farmaziak: 8.800 pezeta.

3.- Merkataritza. Autozerbitzuak: 13.200 pezeta.

1.- Ostalua. Noizbehinka irekitzen diren ostalua eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m²ko edo gutxiagoko azalera dutenak: 8.800 pza.

2.- Ostalua. 30 m² baino azalera handiagoko ostalua eta janari denda daukaten ostalua: 17.600 pezeta.

3.- Ostalua. Pub eta diskotekak: 22.000 pezeta.

1.- Jatetxea. Modu iraunkorrean irekiak dauden elkarte gastronomikoak, eta bortz mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak: 22.000 pezeta.

2.- Jatetxea. Bortz mahai baino gehiago dituzten jatetxeak: 39.600 pezeta.

1.- Hostala. Hamar logela edo gutxiagokoak: 30.800 pezeta.

2.- Hostala. Hamar logela baino gehiagokoak: 44.000 pezeta.

Merkataritzako saltokiak, jatetxerik gabekoak: 44.000 pezeta.

Merkataritzako saltokiak, jatetxedunak: 66.000 pezeta.

Indutriak, lau langile bitarte: 4.400 pezeta.

Indutriak, 5-10 langile bitarte: 8.800 pezeta.

Indutriak, 11-30 langile bitarte: 22.000 pezeta.

Indutriak, 31-60 langile bitarte: 44.000 pezeta.

Indutriak, 60 langile baino gehiagorekin: 66.000 pezeta.

Zuzenean zabortegira botatzea: 138 pezeta metro kubikoa.

non - zer

4 AGENDA Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

7 HONTAZ ETA HARTAZ

8 IRAKURLEAK MINTZO

9/24 HERRIZ HERRI

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarena, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta... Bortziritan, "Euskara Batzordeen Berriak" koadernilloa.

25 KIROLAK: Mindegia aita-semeak munduko bi errekor gaindituko dituzte Donezteben maiatzaren 1ean.

26 ERREPORTAIA: Bortziritako Toki Ona institutua: «Bortziritako beharretara irekiak gaude».

Joxemanuel Irigoien

28 ELKARRIZKETA: Jose Luis Etxegarai: «PNVko alkate bakarra izanik, auniztan bakarrik gelditzen naiz eskualde mailako komisio eta bileretan»

Aitor Arozena

30 MERKATU TTIKIA

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 5.400 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, Daniel Martiarena, Txema Urrotz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernu...

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)
ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450805

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

Elizondo580924

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzaran515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

W Botikak

► **Apirilaren 24-25ean**, Lesaka, Narbarre eta J. Iturralde (Elizondo).

► **Maiatzaren 1ean**, Lesaka, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Maiatzaren 2an**, Etxalar, Doneztebe eta J. Iturralde (Elizondo).

W Deialdiak

► **BERA**, apirilaren 23an, arratsaldeko 8,30etan Bortzirietako «Elkarri» giza mugimenduaren aurkezpena Kultur Etxean.

W Deialdiak

► **ETXALAR**, apirilaren 22an, Euskara mankomunitatearen aholkularitza Batzordearen bilera.

► LESAKA
INTSUMISIOAREN
ALDEKO EGUNA

Maiatzaren 2an, arratsaldeko 7etan, manifestazioa "Epaiketarik ez" lemapean.

Setatik 12etara rock jaialdia, **ZUP**, **NOISE HOLE** eta **OZTOPOKA** taldeekin.

W Gaupasak**► SARA**

Apirilaren 30ean, gaueko 11etatik aintzineraz plazan.

Taldeak: **BALDIN BADA** eta **MINXORIAK**.


Antolatzaile: Sarako Gaztetxea eta Olhain elkarte.

► DONEZTEBE

Apirilaren 30ean, Bordatxo dantzalekuan.

Taldeak: **POTTOKA**, **Balardi-Balardi** eta **Julio Kageta**.

Antolatzaile: Maleurrekako Euskategia (IKA)

W Bota bertsoa**Ximon APEZETXEA**

Goizuetako Bertso Eskolakoa

Gaia: Amorraien istiluak

Neurria: Zortziko Haundia

Egoera onean ez dira aurkitzen errekatako amorrik zaharra ta gaztek jarriak dira erosita kaña berrik makilan puntan flako ta lodi txixariak daude jarrik ta hoiek lasai ezin egonta bilatu beharko harrik.

Euririk ez du egiten eta bukatu da ura dana ta horregatik arraitxo hoiek ez daukate bate jana pinto gorri onik ez bukatzeko egin behar dela lana desgrazi hori gerta ez dadin prestatu behar da plana.

AGENDA

Zinema

► LEITZA

Apirilaren 23an 10,30etan eta 25ean 8etan "Indochina". 25ean 5etan "Los locos de Cannonball III". Ap. 30ean, 10,30etan "Resplandor en la oscuridad". Maiatzaren 2an, 5etan eta 8etan "Intrépidos forajidos".

Erakusketak

► ELIZONDO

Arizkunenean apirilaren 2tik maiatzaren 2a arte, **Fernando Gorostidi** margolaria.

Ikastaroak

► ELIZONDO

OINARRIZKO ERRITMOA
Arizkunenea Kultur Etxean, apirilaren 21etik aintzineraz asteazkeneko arratsaldeko 7,30etan. Apuntatzeko deitu 581279 telefonora.

Gastronomia

BAZTAN ZOPAK

Osagaiak 20 lagunendako:

Ardi buru bat, bi kilo hezur, kilo bat ardi kostilkie, gantza pixka bat, 3 tipul, 2 porru, litro 1/4 tomate, perrexila, pikantea, azafrana eta ogi xerrak.

Osagai guziak, azafrana ezik, zortzi litro uretan



Kontxita GOIENETXEK emana - Etxezuri Ostaturia - ZIGA

egosten jarri. Hiru ordu inguru eduki, eta ondoren, atera-

tzen den salda erazki edo koladorean pasatu. Ondotik, azafrana bota.

Ogia xerratu, xerra mehe-meheak eginez, eta saldandusti. Bero-beroak zerbitu.

Lagunen arteko bazkari batean jateko hagitz egoiak dira.

Baserriko feria



► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kiloko): 4.750 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 130 pzta/kilo **Zerramak**: 60-80 pzta./kilo bizirik.

► BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....550
1.koa.....525
2.koa.....510

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal Extra.....560
1.koa.....530
2.koa.....510
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.


•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 360 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 410 Pzta /Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):
Nabarrak: urruxak 16.000 eta idixkoak 24.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 27.000 eta idixkoak 38.000 Pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.
FUNERARIA ZERBITZUA

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...



Mikel Baraibar

Aresoko erremontelari gaztea

- ▶ **Kotxea ala motoa?** Neguan kotxea eta udaran motoa.
- ▶ **Poteatzea ala diskoteka?** Poteatzea nahiago det.
- ▶ **Igandetan mezetara bai?** Noiz behinka irixten naiz.
- ▶ **Futbola ala erremontea?** Erremontea.
- ▶ **Zure ohea egiten duzu?** Ez, gorroto diot.
- ▶ **Lana egin ala ikasketak?** Ikasketak bukatu nituen eta orain lana behar dut.
- ▶ **Barricada ala Iron Maiden?** Barricada, baino euskaraz abesten dutenak nahiago ditut.
- ▶ **Rubiak ala morenak?** Bietakoak gustatzen zaizkit baina ile beltzekoak gehien.
- ▶ **Gazte matxista ala progrea zara?** Ez det uste matxista naizenik behintzat.
- ▶ **Lagunak, herritarrak ala kanpotarrak?** Lagun onak izanez gero edozein tokitakoak.
- ▶ **Zure ametsa?** Urte honetan profesio-nalietara pausoa eman ahal izatea.

Borreroak baditu milaka aurpegi
Negu Gorriak
Euskalerrria - 1993

Seguraski oraindik ez baduzu aditu ere, kaleratu berria du -hilaren 20ean aurkeztekoa zen- Negu Gorriak taldeak bere azken lana. Disko bikoitza, gainera, 22 kanta biltzen dituena eta "sorpresaz betetako" taldekideek diotenez. Oraingo LP bikoitz honetan ez dago, aintzinekoan bezala, kanta guztiak lotzen dituen hari bat, kantak nahiko independenteak omen dira elkarren artean. Hau dela eta, lehen aldiz



Hogeitabi kanta biltzen ditu Negu Gorriak taldearen diska bikoitzak

Arg: ARGIA

aditzerakoan ulertzeko zaila izan daiteke. Soinuari dago-kionez, bateriari eman diote lehen tasuna 70 minutuko iraupena duen "Borreroak..." diskan eta zenbait talderen bertsioak ere

landu dituzte.

Hitzak egiterako orduan berri, hainbat pertsonaien laguntza jaso dute, Anton Reixa edo Jon Sarasua, bertzeak bertze. Produktzioa, aintzineko diskoan bezala, 'Esan Ozenki'

beraien disketxean egin dute, noski.

Euskalerrrian zenbait kontzertu eginen dituzte maiatzan eta uda pasatuta Europan zehar ibiltzekoak dira.

AITOR

TXOKO erretegia

Bazkari, afori eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

☛ Zure ingurua klase guzitako in-sektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-z garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz!

BERA
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55

BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

«Liburuaren Eguna» ospatuko da hilaren 23an

Urtero egiten den moduan Apirilaren 23an liburuaren eguna ospatzen da. Data hau, literatura arloan aski ezagunak izan ziren Shakespeare eta Cervantes idazleen heriotzen urteurrena gogoratzeko aukeratu izan zen.

Egun hau probextuz, Elizondo, Leiza, Bera eta Lesakako liburutegietako arduradunek deialdi be-

rezia egin dute liburutegietan eskeintzen dituzten zerbitzuak (bertan irakurri, informatu edo maileguaz liburuak etxeratzeko) erabil daitezten. Leiza, Elizondo eta Berakoak astegunetz 4,30etatik 8,30etara eta hilaren bi lehen larunbatetan 10etatik 2ak arte zabalik egoten dira eta Lesakakoa, astegunetz 5etatik 8ak arte.



Manolo Arozena suertatu da hirugarren urtez Nafarroako bertsolarien txapeldun. Gibeletik, bi emakume, Estitxu bere alaba eta Amaia Telletxea arantzarra klasifikatu ziren, saio ederra eginez.

'Leader' proiektuaren inizatibak bideratzeko bulegoa Donezteben



Arantxa Arregi da Doneztebe-ko bulegoan informazioa ematen ibiliko dena

Nekazal zonaldeetako ekonomia bultzatzeko asmoarekin jarria du martxan EEEK. Nafarroan 'Cederna-Garalur' elkar-tea izanen da proiektu hori gauzatzeko arduratuko dena, eta Bortzirriak, Malerreka eta Bertizaranarako bulegoa Doneztebe-ko Herriko Etxean kokatuko da.

Bulegoko arduraduna Arantxa Arregi izanen da, honako ordutegi honekin: astelehene-ortzegunera,

goizeko 8etatik arratsaldeko 3ak arte. Norbaitek aintzinetik telefonoz gelditu nahiko balu berekin, 451654 telefonoan aurkituko du Arantxa.

Bertan, proiektu eta inizatiba ezberdinei laguntza teknikoa eskeiniko zaie, eraberean, dirulaguntzen berri emanen da, lortzeko behar den tramtazioan lagunduz. Proiektu berrien bideragarritasun estudioak egiteko laguntza ere eskeiniko da.

INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



ANIMO, AURRERA!

Orain dela hamabost egun, Leitzako Aurrera Kirol Elkar- teak bere Zuzendari- tza Taldea berri du eta hitz pare bat, bes- terik ez bada, esan beharrean aurkitzen gara. Egun, norbera- rentzat ez denean lan egiteak, konpromisoa hartzea zaila izanik, Elkar- te honek jasaten duen egoera ekono- mikoa ikusirik, zail- tasuna areagotzen da. Kultur esparrua, nere ustez, Herri bat defi-

nitzeko erabiltzen den elementu bat da, nahiz eta behar beza- la ez baloratu. Eta dudarikgabe arlo honetan, erakutsi du- zuen lez, zer esaterik baduzue eta edukiko ere, noski. Beraz, Talde berriari zorio- nak eta animo.



Mikel I.
(Udaleko partaidea)
15.939.028

GUARDIAZIBILA TURISMOAREN ALDE

Jakina da guar- diazibilak goi mai- lako turismoaren alde egiten duten lan es- kergaitza. Kontrolen bitartez, nor nora doan ikasten saiatzen dira buru-belarri. Baina, halere, aur- tengo Aste Santuan independentziazale talde arriskutsu batek Lesakaraino ailega- tzea lortu du. Ez hori bakarrik, beraien camping dendak pa- ratu eta ikurriña eta 'independentzia'

zioen pankarta bat ezarri. Lotsagabeak! Noraino iritsiko ote gara!

Eskerrak bene- meritoak "al quite" zeudela eta edukazio onenarekin pankarta- ikurriñak kendu ara- zi zietela.

Biharamonean, guardiazipilak ope- razio berezi batean bertze bisitatxo bat egin zuten leku arris- kutsu honetara eta biolento hauei den- dak desmontatu arazi eta herritik aldegi- teko erran zieten -me-

sedez, hori bai- nahiz eta ikurriña eta pankarta kenduak egon (ondorengo inbestigazioek anke- tako usaia zutela eta kantzontzilloak as- tean bitan bakarrik garbitzen zituztela argitu dute).

Lan hau eskertzea bertzerik ez da gel- ditzen.

Esker onez...



Lesakako gazte bat

SAROBEn okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

MANUEL MARTIN

Barnekalderako dekorazio dendak
Zerbitzu hauek eskeintzen dizkizue

- Era guztietako gortinak, kamilla bolanteak, edredoiak eta maindiak.
- Alfonbrak, bertakoak eta inportaziokoak Nepalekoak, Turkiakoak, Pertiakoak, Txinakoak...


Bertan egiten ditugu produktu guztiak

25 urtetako esperientzia

Bisita gaitzazu

Serapio Mugika 8
Tfnoa: 943-616603

IRUN



Pasajes 3
Tfnoa: 943-511598

ERRETERIA

J. M. ANDUEZA IRIARTE

Instalazio elektrikoak

- *Sua itzaltzeko tresna guztiak*
 - Mangerak
 - Extintoreak
 - Sua mozteko ateak: Rf-30, Rf-60, Rf-90. etab...
- *Alarmak: Suarenak, lapurretarenak, gasarenak...*

Askain Karrika 12 • ☎ 630854 • BERA



BORTZIRI

ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu.

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

Bortzirietako 'Elkarri' ren aurkezpena

Apirilaren 23an, ortzirala, burutuko da Berako Kultur Etxean

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Euskal Herriak bizi duen biolentzia egoeraren aintzinean elkarriketa eta akordioa bultzatzeko asmoarekin sortu berria da 'Elkarri' izeneko mugimendua.

Bortzirietan, martxoan zehar zenbait bilera publiko burutu ondoren, ortziral honetan Kultur Etxean arratsaldeko 8,30etan burutuko den ekitaldi baten bitartez iragarria du bere aurkezpen ofiziala Bortziririak mailan.

Kultur Etxean 8,30etan Jonan Fernandez, M^a Jesus Rekalde eta Gotzone Sestorain izanen dira 'Elkarri' mugimendua proposatzen duen elkarriketa eta akordio-rako prozesuaren nondik norakoak azaltzera etorriko direnak. Gogoratu



Liburuaren Eguna ospatuko da hilaren 23an. Berako liburutegia egu-
nero 4,30etatik 8,30etara irekia izaten da

behar da, bertzalde, bake-rako bide horren alde da-
goen presio soziala nabar-
mentzeko, firma bilketa
kanpaina hasi berria duela
'Elkarri'k Euskal Herri
osoan zehar. Presio sozial
horren bitartez baita, 'eus-
kal gatazkan eskuhartzen
duten aldean arteko elka-
rrizketa giroa ohizkoa bi-
hurtu behar da akordioa
lortu arte' dio Elkarrik.

Tetanoaren kontrako txertaketa

Maiatzean, 23 eta 32 urte bitartekoentzat eta iaz bi dosiak hartu zituztenentzat aurten hirugarren txertoa jartzeko kanpaina burutuko da heldu den hilabetean. Dena dela, adin horietan sartzen diren guziei papera bidaliko zaie etxera txertoa hartzeko eguna eta ordua adieraziz.

ttipi-flash

- ☐ **Hiltegi** edo mataderi municipalaren moldaketa lanak bukatu ondoren, berriro ere martxan dago.
- ☐ **Antzerki taldea** antolatu dute herriko hamabortz bat gaztek. Kultur batzordeak bultzatutako taile-
rretan hasi ziren eta orain bere kabuz, esperientzia-
rekin jarraitzea erabaki dute. Orain Pio Barojaren "Altzateko jauna" pres-
tatzen ari dira. Larunba-
tero biltzen dira, goizeko 10,30etan Kultur Etxean.
- ☐ **Presoen aldeko** enkarteladak burutuko dira hilabetero, hilabete lehen asteartean Alzate karrikan, Errekalde ostatuaren aintzinean gaueko 9etan. Lehena, hilaren 6an egin zuten eta doze-
na bat inguru jende bildu zen presoekiko elkarta-
suna adieraztera.

GOZOTEGI - JARDONE



Itzea 3, 630786 - BERA

BOTXO ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

TXOKOA OSTATUA

- X Eguneko menua
 - X Asteburutan, kaxuelak eta karta
 - X Gosari, bazkari eta afariak aintzinetik eskatuta
 - X Pintxoaren espezialduak
 - X Gazte giroa
- Tfnoa: 630286, Alzate • BERA

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

LESAKA

Maitzaren 2a, "Intsumisioaren Aldeko Eguna"

Herri Asanbladak antolatuta, manifestaldia eta rock jaialdia burutuko dira

AITOR AROZENA

Manuel Zamoranoren epaiketa dela eta "Intsumisioaren aldeko Eguna" antolatu du Herri Asanbladak maitzaren 2an.

Arratsaldeko 7etan manifestazioa aterako da Plaza Zaharretik 'Epaiketarik ez' lemapean. 8etatik 12etara rock jaialdia izanen da Berako Zupeta eta Noise Hole eta Irungo Oztopoka taldeekin.

Zonaldeko EA eta HB alderdiek eta Lesakako Jarraik ekitaldi hau eta intsumisioa orokorki apoia-tuko dutela errana dute.

Epaiketa maitzaren 4ean Manuel Zamorano herriko intsumisioaren epaiketa maitzaren 4ean eguerdiko 12etan burutuko da Iruñean. Bertara joateko autobusa antolatu du Herri Asanbladak eta rifak ere salgai daude.



Manolo Arozena izan da hirugarren urtez Nafarroako bertsolariaren txapeldun. Ondotik, bere alaba Estixu gelditu zen

AITOR

DYAk gutxitu sikikoak Berako 'Uxane'ra eramateko zerbitzua eskaini nahi du

DYA elkarteak, Gizarte Zerbitzuarekin batera zerbitzu berri bat eskeintzeko proiektua aurkeztu du Herriko Etxean. DYA-ren asmoa, gutxitu sikikoak eta burmuin elbarriak Berako 'Uxane' zentrorra eramatea litzateke. Proiektu hau aintzineratzen eramateko, egunero 4-5

orduz lan egiteko pertsona behar da.

Udalak proiektu honen aldeko informea ematea erabaki zuen. Eraberean, Bortzirietako gainontzeko udaletan gaiaren berri emanen dute, zerbitzuaren aurrekontua guztien artean -biztanle kopuruaren arabera- ordaintzea eskatuz.

W ttipi-flash

□ **Onbordiko** tunela mol-datuko du Udalak. Jakina denez, txirindulazaleek firma bilketa burutu zuten leku hau lehenbaitlehen konpontzeko.

□ **Beti Gazte** elkarteari 467.842 pezetatoko dirulaguntza eman dio Udalak 'Kristo-Enea' futbol zelaia eta aldagelen mantimendurako.

□ **Dantzaldiak** igandetik larubatetara pasatzea eztabaidatu zen azken plenoan. PNVren ustez, dantzaldiak betidanik igandetan egin dira. HBkoak musika larunbat edo igandean antolatzearekin ados zeuden eta EAkoak azkenik, igandetan segitzearen aldekoak ziren, larunbatetara pasatu aintzinetik zenbait pertsona eta talderekin solastu behar harko zela erranez.

ONIN Agentzia

Albistur 53, ☎ 637359 - LESAKA

- Aseguruak eta kontabilitatea
- Errenta eta IVA deklarazioak
- Eskrituren likidazioa
- Edozein aferetarako ofizina
- Zunzarren-en kolaboratzaileak

IRUBIDE

OSTATUA ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA



bitxikeriak • opariak • eskulangintza

XATURETXEA FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

SASKI-ZAR OSTATUA

LESAKA

ALBARTETXEA

JATETXEA

Otordu goxoak sutondoan
Asteartea itxita

Antoiu 26
Tfnoa: 948-627622
LESAKA

Nekazari kooperatibaren salmentak ttikitu ziren iaz

Antza denez, azienda gutitzen ari da

PELLO eta JON

Martxoaren 27an USOA Kooperatibako bazkideek urteroko batzarrar burutu zuten. Bertan aipatutako gai garrantzitsuen salmenten jeitsiera izan zen, %12 jeitsi dira eta azken urtean. Badirudi hemen ere toki guzitan dagoen krisia nabaritu dela. Bertzalde, kooperatibako bazkideek urtero egiten duten bazkaria apirilaren 18an burutu zuten.


Andremeritako orkestak

Oraindik udaberri hasieran egonik ere, uda erdiko eginbeharrez oroitu behar. Abuztuan etorriko

diren orkestekin solastatua da, aspaldixko jada, Udala. Hara zein diren: 15erako Laiotz Taldea, zeinari 210.000 ordainduko zaizkion. 16rako Luharts Taldea, 185.000 pezetataz. 17an Sirika Taldea izanen dugu, 185.000 pezeta ko-bratuko dituen. 18an, berriz, Basajaun Taldea, garestiena, 260.000 pezeta eramanen baititu. Mantenua euren kontura.

Kanala estaltzeko lanak

Gaineko zentrala urez hornitzen duen kanala, depositutik tunel ttikiraino estaltzeko Udalaren baimena lortu du EHNSA enpresak. Dirudienez,



Igerilekuaren proiektuaren arabera, aintzinean duzun marrazkian ikusten ahal duzuna, bi igerileku izanen dira: haundientzako 25 x 10,5 metro dituen eta haurrentzako 6 x 5 metrotakoa. Egonlekuaz gainera, aldalekua ere izanen da eta, zerbitzua osatzeko, ostatua; baita berendua prestatzeko eta jateko toki berezia. Eraikuntza edo konstrukzio lanak abudo hasiko direla espero da, lehen pentsatutako fetxa errespetatu ez bada ere. Izan ere, obra egiteko eskeintza bakarra izan, eta hartzaileak orain diru gehiago eskatzen du, nonbait.

neurri honen bidez, instalakuntzen hobekuntzaz gain, ingurugiroari ere

mesede handia egingen zaio. Obraren presupostua 26 milioi ingurukoa da.

LAINO
LIKIDAZIOAK
San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

BEKO ERROTA
Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

IRAGARKI HAU 5.400 ETXETAN SARTU DA
ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO

ARRANO

OSTATUA
Legarrea - LESAKA

KOXXKONTA

Sagardotegia
ZABALIK
Deitu erreserbak egiteko
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

1.700 zuhaitz landatu dira aurten lur komunaletan

Bertzalde, «Elkarri» giza mugimenduak badu bere taldea herrian

OSKAR TXOPERENA

Plantak menditan paratzeke aurtengo aroa joan zaigun honetan Udalak guztira 1.700 zuhaitz landatu omen ditu komunaletan (haritz amerikanoak, gerezioondoak, eltzaurrondoak, etabar...). Azkeneko urteotan baino guttiago, beraz.

Pala txapelketatik kanpo igantziarrak

Azken *ttipi-ttapan* Biltokiko pala pilotariak Euskalerrria eta Errioxako Cluben arteko txapelketa irabazteko aukera haundiak zituztela erran bagenuen ere, atarian gelditu direla erran beharko oraingoan. Erdifinaletan galdu zuten



Hain modan ditugun bertso bazkari horietako bat izanen dugu Biltokin hilaren 25ean. Badute ba Igantziko bertsozaleek goxatzeko aukera, Arozena eta Egañak atseginduko bait dute bazkalondoa. Bestetan izan genituen azkenekoz bertsolariak
Argazkia: OSKAR

eta kanpoan gelditu dira.

□ **Elkarri** elkarrizketa eta akordioaren aldeko mugimendu bakezaleak badu bere taldea Igantzin ere. Euskalerrriko gatazka

gainditzeko helburuarekin sortutako mugimendua da eta Igantzin 10-15 lagun biltzen ditu bileretan bere inguruan. Laister izanen duzue bere berri, firma bil-

keta etxez etxe egiteko asmoa baitu eta Bortziriak mailan 23an izanen baita aurkezpena. Bileretan parte hartu nahi duenarentzat irekiak daude.

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Zurezko zoletan nahi duzuna



Tfnoa: 630735 - BERA Tfnoa: (943) 622305 - IRUN



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua



Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA

MANOLO TABERNA

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,
Ardoak, Likorrak,
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA

Amaia Telletxea hirugarren bertsolarien txapelketan

Bere anaia Aitor eta biak urte honetako ustekabea izan dira

MIRARI eta MARTA

Azkeneko *ttipi-ttapan* aipatu genuen bezala Aitor eta Amaia Telletxea Iruñeko Gaiarre antzokian ospatutako Nafarroako bertsolari txapelketaren finalera pasatu ziren. Bittor Elizagoien, Manolo Arozena, Estitxu Arozena, Urko Atxotegi, Jean Pierre Mendiburu eta Mixel Xalbador lagun zituztelarik hiru ordu terdiko saioa egin zuten. Aitor lehenengo tandan kanporatua izan zen, zortzigarren postua lortuz, baina bazkariaren ondoren argi erakutsi zuen mahai-inguruan ederki aritzen den bertsolaria dela.

Amaia aldiz, usteka-



Amaia Telletxeak hirugarren postua eskuratu zuen Nafarroako bertsolari txapelketan saio bikain baten ondoren

Arg: AITOR

bean bigarren txandara pasatu zen, Manoloren ondolik bigarren postuan, ederki eta lasai aritu baitzen lehenengo bertsoetan. Bigarren faseko bertso haue-
tan, ordea, nerbioek fuerte

atakatu zuten eta ez zuen hasieran hainako bertso saioa egin. Ondorioz, hirugarrena gelditu zen. Hala ere, lehenbiziko urtea izateko ez dago batere gaizki, alajaina!

☐ **Senideak** elkarteak aurkeztutako mozioa onartu zuen ahobatez udalak. Modu honetara, telegramak igorriko zaizkie zenbait kartzeletako zuzendariei.



ATERPE
jatexea

Tfnoa.: 63 41 79
ARANTZA

ZONALDE HONETAKO 5 ETXETIK 4tan
ttipi-ttapa HARTZEN DUTE
ZURE KLIENTEEK ERE ttipi-ttapa HARTZEN DUTE

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO
BIDAIK

BIDAI
AGENTZIA
G.A.T. 2.015

✕ HERRIAK
✕ MENDIAK
✕ TURISMOA
✕ TREKING eta
BIDAI ALTERNATIBOAK


ADUANÇA KALEA, 5
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 PIRIN

NATUR ETA ESKU TERAPIA

QUIROPRAKTIKA

Sendatzeko modu
naturala da.
Interesatzen bazaizu
deitu telefono honara:

☎ 45. 16. 42



Inzakardi 3 - 1. A eta B - **DONEZTEBE**

SUNBILLA

1.300 pertsona inguru Herri Kirol taldearen bertso saioan

Aste Santuko prozesioa burutu da aurtengoan

IXABEL eta JOSUNE

Arrakasta handia izan zuen joan den igandean ospatutako bertso saioa, 1.300 lagun inguru elkartu ziren. Bertan, Peñagarikano, Lizaso, Egaña, Sarasua, Euskitze eta Muruak kantatutako bertsoekin jendeak gustora pasatu zuen.

Prozesioa


Aste Santutako prozesionia aurten ospatu ahal izan da, denborak lagundu zuelako. Arratsaldeko

8etan atera zen elizatik eta aurrean joan ziren apostoluak, ondoren borts pauso, Sunbillako korala eta jendea, azkenik.

Iturri berria

Leku-Eder auzoan iturri bat jarri dute. Losakin egina dago eta nahiz eta oraindik zerbait falta badi-rudi laister bukatuko dela.

☐ Eliz ondoko bidean azken konponketak egiten ari dira. Erdian ormigoia bota zuten eta orain bazterbidea losatzen ari dira.



Sekulan ez zen bilduko Sunbillan joan den igandean adina jende bertso saio bat aditzera. Bertsolariak punta-puntakoak ziren eta jendearen erantzuna baita.

LEGASA

Mendiko ahuntzak kontrolatuko ditu Udalak

DANIEL MARTIRENA

Auzolana egin zen larunbatean, pistaren leuntze, bazterren garbitze eta herri inguruko zaborraren biltzeari ekinez.

Aipatzekoa da gainera, oraingoan segurupean zeudela, inbalido geratuz gero 10 milioi, heriotz kasuan borts milioi eta baja izanez gero, egun bakoi-

tzeko 3.000 pezeta kobratuko lirateke.

Bertzalde, herriko mendiekin muga duten udal eta kontzejuei ahuntzak mendian aske ez uzteko proposamena luzatuko zaie. Honen helburua, Nafarroako Gobernutik haritz eta pago birplantaziorako dirulaguntza lortzea da.

Proposamena beteko ez



balitz, hilabete bateko epean, gobernua ahuntzak nolanihi kentzeko eskubi-

dean legoke, abere hauek mendian aske egotea legez kanpo dagoelakoan.

LABAIENGO OSTATUA

Pentsio osoa

Sukaldaria Julieta andrea

Tfnoa: 450055 - LABAIEN



CATERPILLAR MIXTA - 428

SASOI EXKABAZIOAK

☎ 450286 ARTZE - DONAMARIA

Udal-idazkariaren kontrako 'bortxa sikikoa' salatu dute hainbat bizilagunek

JOXEMANUEL

"Martxoaren 8an berriro lanean hasi zenetik zenbait udalkidek Ana Fraukari egiten ari dioten bortxa-sikikoa onartezina da. Ez dago eskubiderik!". Holaxe mintzo dira zenbait bizilagun, apirilaren 3an burutu zen udal batzarratik ateratzerakoan.

Bertizaranako idazkaria den Ana Frauka bajarekin egona da azken urte terdi honetan. Bizilagun hauek diotenez, berriro lanean hasi denetik "udalkide ezberdinek gelditu gabe

'Bortxa sikiko horren eraginez', Ana pare bat aldiz eraman behar izan dute osasun etxe ezberdinetara.



egiten dioten presio sikiko horren eraginez, Ana pare bat aldiz eraman behar izan dugu osasun etxe-

berdinetara; behin Doneztebera eta bertze batean Iruñara". Horrelakorik berriro gerta ez dadin eta

egoera behingoz moldatu artean, "laneandagoenean guardia egiten segituko dugu" azpimarratzen dute.


URROTZ

Leurtza jendez bete zen Aste Santuan

Zoritxarrez, errespeto gutti zaio leku eder horri eta zaborraz betetzen da ingurua

TXEMA URROTZ

Urtero bezala hasi zaizkigu kanpotarrak etortzen Aste Santuarekin batera Leurtzako urtegieta. Azken egun hauetan sekulako trafikoa ibili da, zorionez istripurik gabe, nahiko abentura bada ere karrera horretatik ibiltzea horrelakoetan. Dena den, gero eta argiago ikusten da zerbait egin beharra dagoela afera honetan. Alde batetik, nahiz eta jende aunitz ibili herrian ez delako dirurik gelditzen eta ber-



Leurtzan sekulako jendetza ibili da Aste Santuan, baina ez denak nahi bezain garbiak
Arg: Txema ALDABE

tzetik, makurrena, nahiko molestia ematen dituzte-

lako egurra ebatsi, arbolei adarrak moztu, zaborrak

bota edo plazako kanastei sareak kenduz. Penagarria da jendearen errespetu eta kontzientzia faltagatik neurriak hartu behar izatea.

Ezin aipatu gabe utzi, urteak joan urteak etorri Aste Santuko egun hauetan Leurtzako urtegien egoera: zaborra nonnahi, plastikozko poltsak hanhemenka eta orokorrean hagitz zikina, inor ez baita garbiketaz arduratzen. Penagarria benetan. Tokatzen zaionak eskua sar dezala.

DONEZTEBE


Arkupeak antolaturik bidai ezberdinak udaberrian

Ekainaren 30ean, bertzalde, Doneztebeko lokalen inaugurazioa

TXEMA ALDABE

Arkupeak Elkarteak gogor segitzen du lanean. Zenbait bazkide Mallorcan ditugu maiatzaren 1a arte eta bertze zenbait, apirilaren 22an, Jabiererra egun osoko joanak.

Maiatzaren 4ean, berri, Benidorm aldera joko dute 15 egun pasatzera. Maiatzaren 20an Iparraldera goizez, gero Irunen bazkaldu eta atsalde igaro (prezioa 2.500 pza.). Maiatzaren 24tik 28ra Aragoiko pirineotara, goizero ingurua ezagutzeko irteerak egingen dira eta arratsaldez atsedena. (22.500 pza). Eta ekainaren 10ean Azagra herria eta inguruak ezagutzeko ber-



Jaialdia izanen da apirilaren 30ean Bordatxo dantzalekuan Malerrekako Euskategia IKAk antolatua, Pottoka, Balerdi-Balerdi eta Julio Kagetarekin.

tze bidaia, honen balioa 2.500 pza.

Aipatu martxoaren 8tik 22ra Canariasetan izan zirela eta apirilaren Ilean Lizarra eta bere inguruetan. Honetaz gain Arkupeak dagoen herri guzietan bertakoen besta ere egin da.

Zazpigarren urteurrena

Aldizkaria, eskulanen erakusketa, bazkaria, 85 urtetik goitikoei omenaldia, Donezteben egiten ari diren lokalen inaugurazioa, dantzaldia, meza eta programa borobila prestatzen ari dira

W ttipi-flash

- Elizatariko hiru lorontzi hautsi dituzte Aste Santuan gauez.
- Guraso talde bat beren haurrekin izan ziren aste Santuan Euskaltegian. Euskara praktikatu eta ingurua ezagutzeko aukera eman nahian antolatu da ikastaroa.

ekainaren 30ean Donezteben egingen den bilerarako. Egun honetan baita, Arkupeak sortu zela 7 urte beteko dira. Ikusten ez den lan soziala kontutan hartzeko da, mota ezberdinetako beharrak dituzten pertsonen laguntzen bait diete.

LORE TOKI

GARAICO ESKEINTZA

- ✿ Hazitarako patata
- ✿ Fruitondoak
- ✿ Udaberriko landareak

ETORRI ETA IKUSI

NARBARTE - ☎ 592200

TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- Edozein era eta neurriko altzariak egiten dira. Fabrikanteak gara.
- Tresillo eta tapizerietan aukera zabala
- Zure erosketengatik opari ona eramanen duzu

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**

HERRIKO OSTATO

ZUBIETA

OTORDUAK • LOGELAK
Tfnoa: 450793

Apirilaren 30ean **GAUPASA** Bordatxo dantzalekuan
POTTOKA, BALERDI-BALERDI, JULIO KAGETA

Sarrera: 600 pza

Antolatzaile:



Malerrekako Euskategia (IKA)

Argitaratzailea: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Arantzako Herriko Etxea, 31790 Arantza, Tfnoa: 634125
Montajea eta Maketazioa: ttipi-tpapa

Eskuartearen duzuen hau da aurtengo "Euskara Batzordeen Berriak" gehigarriaren lehendabiziko alea. Hiru hilabete hauetan sortu diren berrien artean aipagarriena Bortzirietako, Baztan eta Malerrekan egindako soziolinguistika ikastaroa da, bertara Bortzirietatik 15 bat lagun azaldu direlarik.

Ikastaroan zehar euskararen inguruko hitzaldi interesgarriak entzun ahal izan genituen: euskararen historia Nafarroan, euskararen normalkuntzarako teoriak, euskara elkarten lana, Udalerrri euskaldunak, euskararen egoera, bertako komunikabide euskaldunak, bertako hizkerak eta euskara batua...

Hitzaldiak emateko hizlari hagitz prestatuak eta ezagunak ekarri ditugu, Katalunyatik ere lagun bat etorri zitzaigularik. Emaldi denetan 30 lagun baino gehiago bildu ginen eta eskualdeko egoera aztertu zenean, hala nola Nafarroako, Elkarte Autonomoko eta Katalunyakoko Gobernuetako Hizkuntz Politikako ordezkariak bildu zirenean 60 lagunetik gora elkartu ginen.

Beraz, balantze positiboa egin beharrean gaude, egin

ahal izan ditugun akatsak ahaztu gabe. Espero dezagun ikastaroan bildu diren euskalzaleek ikastaroan azalduetakoa barneratu dezatela eta ideia berri eta freskoak eduki eta bultzatu ditazatela, horixe baita euskarak gaur egun hemen eta toki guztietan behar duena.

Bertzalde, eta kultur

ekintzei dagokionean, Lesakako Euskara Batzordea hasia da euskararen astea prestatzen. Aurten ekitaldi nagusia Maiatzean egindako bertso saio txukun bat eta ondoko herri-afaria izanen dira. Bertze herrietan momentuz berandugarako utziko da urteroko ekintzen antolakuntza.

Euskara Mankomunitateari

dagokionez, Euskararen Udal Ordenantza onartu duela erran behar da, eta berehala ekingo diola Ordenantza aplikatzearen lanari, Udalaren funtzionamendua eta gure herrietako eguneroko bizimodua euskalduntzen bertze urrats bat eman asmoz.

SOZIO-LINGÜISTIKA IKASTAROA

NON?
BORTZIRIARIK
BAZTAN
ETA
MALERREKAN




NOZE?
OTSALA -
MARTXOA
BITARTEAN

Berriak

Joxe Anjel Irigarai: «Euskara batua eta euskalkia elkarren osagarriak dira»

Gehienok “*Ez dok amairu*” taldeko partaide gisa ezagutzen dugu, Benito Lertxundi, Xabier Lete eta bertze batzurekin batera. Iruñear hau, ofizioz medikua den arren, afizioz eta debozioz idazlea da. Alor honi dagokionez «*Euskera eta Nafarroa*» liburuaren egilea dugu. Akautu berri den soziolinguistika ikastaroan, hain zuzen “Euskera, Euskal Herria eta Nafarroan” gaitzat hartu zuen, bere hitzaldia emateko.



PATRI ARBURUA

Ze “gaixotasun” du euskarak?

Bueno, nere ustez ez da euskara “gaixo” dagoena, euskaldunok baizik. Historiari begiradaxo bat ematen badiogu, azken mendeotan euskaldunok menpeko egoera batean bizitu gara ikus dezakegu. Horrela ailegatu gara gaurko egoera honetara baina halare, komeni litzateke azpimarratzea gu geu ga-

rela “gaixo” gaude-nak.

Beraz, zein litzateke antidotoa edo sendabidea?

Ildo beretik segituz eta euskaldunok izaki gaixo gaudenak, sendatu edo osatu beharrekoak gu geu gara. Horretarako behar beharrezkoa da euskaldun izateko borondatea edukitzea. Borondate hori edukiz gero, egitura bat egin behar da prozesuak aintzinerari segitu dezan.

Nola ikusten

duzu euskeraren egoera Nafarroan azken urteotan?

Jakin badakigu Nafarroa dela gure euskararen kobazuloa. Baina jakin ere badakigu euskeraren egoera Nafarroan hagitik kritikoa dela gaur egun. Hala ere, Komunitate Autonomoarekin konparatuz, Arabako eta Bizkaiako zenbait eskualdetako egoera ez da hagitzez hobea. Beraz, egoera orokorrean da kezkarria.

Gure eskualdea-

ri lotuz, nola ikusten duzu euskeraren egoera?


Legez eskualde hau erreserba baten modura jarri dute. Baina lege orokorra goak egon dira historian zehar eta momentu honetan arazorik kezkarria zera da, eskualde hau “zona vascofona” den arren, oraindik euskera ikastea eskubide bat bertzerik ez dela, erdara ikastea obligazioa den bitartean.

Gure euskalkia arriskuan egon al daiteke euskera batuen presentziarekin (irratian, telebistan...)?

Joera bat izan da bertako euskara eta euskara batua elkarren aurka jartzeko. Hau akats handia da, izan ere biak osagarriak bait dira eta bakoitzak bere funtzioak bait dauzka: lehenak maila lokalago batean edo eskualde mailan funtzionatuko luke eta bigarrenak berriz, goi mailako funtziotan edo maila nazionalan, baina inola ere ez elkarren kontra, elkarren osagarri baizik.

Berriak

Txaloketa



Bortzirietako baserrien izenekin bidegurutzetan seinaleak jartzea proposatu zaie udalei. Horrela bi gauza

lortu dira batera. Baserriaren bila dabile-nari laguntzea eta izenak euskaraz zuzen idatziak eskeintzea.

Salaketa



Hala ere arras gutxi dira, esku baten teko behatzekin kontatzeko moduan, beren kanpo erroto-loak euskaratu duten

denda, komertzio eta lantegiak. Zure kasua hori baldin bada, badakizu, erroto-loa berritu bidenabar, euskaratu!

Pertsonaiak



AMAIA TELLETXEA
Arantzako bertsolaria

Nork ez du jada Amaia Telletxea ezagutzen? Gaurkoan bera dugu txoko honetako protagonista. Datoren urrian 18 urte beteko dituen arantzatar honi, 13 urteaz gero sortu zitzaion bertsotarako zaleatasuna. Etxean betidanik bizi dute bertso giroa eta Aburuza irakasle zuelarik hasi zen 7. mailan. Gero, Bortzirietako bertso eskola sortu eta bertze lagunekin serioago ekin zion. Bertsoa jostatzeko tresna bilakatu zitzaion eta trebetasuna hartuz joan zen.

Bere asmoa finalera ailegatzea zen eta bere papera nola hala betetzea. Baina, hara non pasatzen den bigarren fasera.

Herriko Plaza

Azken hiru urteotan nafar bertsolaritzak berrikuntza nabarmena izan du. Bertso eskolak martxan jarri zirenetik gazteak oso gogor ari dira bertso lanean. Lehengo bertsolariak pixko bat zahartzen hasiak zeuden eta berriak azaltzen ez ziren urte horietan bertsolaritza noraezean egondu da Nafarroan.

Zorionez, gaur gazteen bultzada ongi etorria eta eskertzekoa da. Horrela, aurten Nafarroako txapelketan izan du-



MANOLO AROZENA MITXELENA

Bertsolaria

Hemengo bertsolariak tartekatu behar dira bertako saioetan

ten arrakasta izugarria, sei gazte Bortzirietatik eta bat Iparraldetik erabat berritu bait dute Nafarroako bertsolaritza. Gazte talde hau nola bultzatu, nola plazaratu, nola bertsolari egiten lagundu, hori izan behar luke bertsozaleen

ahalegin haundiena.

Gipuzkoar bertsolariak datoz Nafarroara —dudik gabe, beharrezkoak dirabaina hemengo bertsolariak horien ingurura sartzen saiatu beharko genuke. Ez dut ongi ikusten Nafarroako bertsolari gazteak bertze

herrialdetara barra-barra joatea saioak egitera eta Nafarroan hemengo bertsolaririk gabe saioak egitea.

Sei kanpotar izan beharrean, lau eta bertako bi jartzeak ez luke saioaren maila jeitsiko. Eta bertakoak aukeran daude.

Berriak

Diskak.....



«SOROTAN BELE»

Hondarribia eta Lezo artean koka dezakegun talde honek, bere lehen diska kaleratu berri du. Doinu alai eta goxo hauek Irlandako musika eta euskal rockaren arteko nahasketa dira. Eurek garbi dioten bezala, ez dira «Celtas Cortos» taldearen euskal bertsioa.



«LES MECANICIENS»

Izen bitxia duen talde honek 2 diska ditu entzungai eta hirugarrena buruan. 7 partaide dira, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldekoak eta guztiak koktel gisa elkartzuz letra satiriko, musika alai eta erritmo bizien sortzaile dira.

Euskal testu zaharrik

Etxalar eta Sara artean dauden usategiak direla eta, hona hemen duela 140 urte Etxalartik Sararat bidalitako paperak, idatziak izan ziren bezalaxe bilduak.

Echalar 21 de dic 1852

Ene adisquide Dithurbide: igorzen dauzquizut zuben sareac eta 54 francos hayen arrendacionia, 13 francos aren gainera zoin baitira 13 uso egaldunen saria zure contutic eraman. Dembora berian avisacen zaitut bi sareetarie baten ez dubela cerbizarat. Letra unen emailiac cein baita Mayeneco yauna, erranen zaitu zer disposicionetan aurquicen diren arbolac eta nola desiracen den bago plantac paracia eldu den lembicico sasoinan: da persona ongui comprenizen dubena eiciaren eguitea. Geldizenaiz yaun Dithurbide zure zerbizari consideracione distinguitu batequin eta adisquide

F. J. Berrueta

Echalar 2 de setiembre de 1854

Nere adisquide M. Dithurbide: nola urbildu baita uso eiciaren dembora, desiratcen dut zuben bi sareac 60 francos errenta, ortarie quencen direlaric sei peceta traparen eta estalviaren componceco lenagoco urtetan bezala. Zuben Munoco sariac biar izanen du antolatu lau besoz sei bat libera liztarequin Bautistac erranen dizun bezala letra unen emaita. Geldicen naiz yauna zure adisquide consideracione distinguitu batec.

Victoriano Arribillaga

Hau jende pila!

Turismo berezia izan dugu herrian

JUAINAS

Ez da noski, Zubietan bakarrik izan, inguru guztia jendez, turistez beterik baitzegoen. Bizkaitar eta gipuzkoarrak ziren gehienak, beste tokitakoak baldin baziren ere... Iduritzen zait, dena dela, Zubietan badugula horrelako **turismo berezia**. Esate baterako, ohizkoak egin dira Bretona eta balentziarrak. Azken urtetako Aste Santuetan aldiro datoz Aberri Egunera joateko. Berezizat har daiteke, baitere, lasartearrak osatu zuten taldea. Ostatura etorri ziren egunez estalpean euren espektakulua en-

tsaiatzera: musika-abestidantza-koreografiatzeko espektakulua egin zuten. Birtartean, bertako zenbait hortik zehar: Landesetan, Arabako lurraldeak ezagutzen, Parisen, Ibizan... hau duk hau, mugitu beharra! Estalpea "a tope" egondu da. Egunez entsaioak ziren bezela, gauez 8etatik 10etara erakusketa baitzegoen. Nere idurin arrunt polita suertatu da eta momentuz hamaika egunetik bost pasatu direnean, izan diren 102 bisitaldietatik inork ez du itsusiztat eman.

Beste ezohizkotasunak egondu dira ere, **suak** bereganatu zuen horrelako



protagonismo bat, Gartziko ardi borda errez. Su aferekin segituz, apirilaren 10ean udalak deiturik bertako su hiltzaile sistemak erabiltzen ikasteko bilera bat egon zen. Erabaki da kontsultorioko sarreran trasterik jartzea, beharra baldin badago, zentraliza-

tu eta erabiltzeko errex egon dadin.

Migelteneko Celedonia hil da. Bere ezkilak, Pazko igandekoekin nahasten ziren. Udaberria aurrera doa, baratzak martxan... xapakotarrak bordara egin zuten trasladoa, alde egiten zuten turistak lilurutzen.

ITUREN

Udalbatzak ezetza eman zion intsumisioari buruzko bi mozioei

IBAN ISASI

Apirilaren 3ko plenoan intsumisioari buruz HBk sartutako mozioari eta iturengo gazte batek bere ize-nean sartutakoari ezetza eman zion EAK. Gainerako bi kontzejalek, HB eta TB, mozioaren alde botatu zuten.

AEKren barnetegia

Udal plenoan onartu zen

Udaletxean udako barnetegiak antolatzeko AEKk egindako eskaria.

Probetxamendu forestala lur komunaletan

Nafarroako gobernuko Nekazaritza, Abelzantza eta mendi sailak onartu ditu Nafarroa osorako 15,6 milioitan baloratutako probetxamenduak lur komunaletan. Itureni dagokionez,



MAITE ARIZTEGI

500.000 pezetatan baloratutako probetxamendu forestalak egiten dira

192 haritz eta bagondo, 111 metro kubiko egur, 7,5 metro kubiko 'tronquillo'

eta 78,35 metro kubiko egur, guzti hauek 500.000 pezetatan baloratuak.

GOIZUETA

Urdiñolako parajeen aziendak ibiltzea galerazi dute

Osasun Zentroko larrialdi zerbitzuaren ordutegia aldatu da, bestalde

ESTEBAN AROZENA

Duela hilabete batzuk Donostiako udalak Artikutzan dabiltzan behi eta ahuntzen aurkako batidak baimendu bazituen, oraingoan Leitzatik dator abisoa, Urdiñolako parajeetan alhatuak dauden aziendak erretiratzea eskatuz, hain zuzen.

Otsailaren 26ean hartu omen zuen Leitzako udalak aipaturiko akordioa, eta Goizuetako Herriko Etxera bidalitako idazkiak dioenez, hainbat arazo sortzen dituzte azienda hauek eta Urdiñolako mendi komunalaren itxiturak konpondu bezain laister bertan harrapatutako ardi, behor... denuntziatu egingo omen dituzte.



Aldaketak izan dira Osasun Zentroko larrialdi zerbitzueta

Larrialdi zerbitzuan aldaketak

Osasun zentrotik adierazi digutenez, azken egunean aldaketa batzuk eman dira mediku eta erizainaren larrialdi zerbitzuan.

Orain artean, astelehen

goizeko 8etatik larunbat arratsaldeko 3etara Ignacio Yurrs eta Cristina Urrutia- ren esku zegoen zerbitzua. Orain, astelehen eta ostegun arratsaldeko 3etatik hurrengo eguneko 8ak arte eta ostiral arratsaldeko 3etatik as-

telehen goizeko 8ak arte Juncal Paradales medikua eta Agurne Fernandez erizaina dira arduradunak. Dena den, 061 telefono zenbakira deitu behar omen da larrialdi kasu guztietan.

□ **Herritar** askoren artean haserrea sortu du amonariaren arrantzari buruz hartutako neurriak, batez ere, maiatza arte zizarea erabiltzearen debekuak, gehienak amuzki edo zebo mota honekin arrantza egin ohi bait dute betidanik.

Nahigabe hau nolabait bideratu nahieran, 50 herritarrek siñatutako idazki bat bidali da Iruñara, beraien ezadostasuna eta protestarik gogorrena azalduz Nafarroako gobernuaren aurrean.

ARESO

Emakume ezkonduen afaria burutu zen

JUANA MARI SAIZAR

Emakume gazte talde batek ospatu zuen Larunbat santuan emakume ezkonduen afaria, bere zortzigarren urtean. Hogeitabost gutxi gora behera bildu ziren. Aurten gutxiago izan ziren, ez dakigu zergatik,



Emakume ezkonduak zortzigarren urtez elkartu dira afaltzera

bainan denen artean giro oso polita sortu zen. Batzuentzat momentu ego-

kiena izaten da urtean behin beren lagunekin elkar-tu eta gustora hitz eta farre

egiteko. Afaldu ondorean, dantza egin zuten aspertu arte eta goizean goiz penarekin etxe aldera abiatu ziren hurrengo urterako berriro zita eginez.

□ **Jostunen ikastaroa** bukatu da eta balantzea oso ona izan omen da. Batzuk gusto haundiarekin hartu dute eta hurrengo urtean berriro hasteko prest daude.

□ **Udalak** azken bileran *ttipi-ttapa*ri 20.000 pezetako dirulaguntza ematea onartu zuen.

Kultur taldeak aurtengo egitaraua aurkeztu du

Hilabetero izanen da aktibitate interesgarri bat

JOSEBA AZPIROZ

Leitzako kultur taldeak egin eta etxez etxe banatua du, urtean zehar izango diren ekintzen egitaraua, Kultur Astea barne delarik. Hilero hilero izango da kultur ekintza interesgarriren bat: antzerkiak, hitzal-diak, erakusketak, musika, etab... Aste honetarako, aipatu genizuen bezala, Mendi Astea antolatu zuten. Gaur, osteguna, "Everest oxigenorik gabe" lemapean, Felix eta Alberto Inurrategiren eskutik diapositibak eta hitzaldia izango ditugu, eta baita eski bideoak ere. Bihar, ostirala, "BEX-Everest nafar espedizioaz" diapositibak, bideoa eta hitzaldia Juan Tomasekin eta larunbatean "Grito de Piedra" filmea. Hauek denak, arratsaldeko 8etan, zineman izango dira. Igandean berri-ritz, herriko menditara irteera bat izango da eta kar-



Aurrerako lehen futbol taldeak Federazio kopa jokatu du Arg. ANTON

telen bidez jakineraziko dira ordua eta elkartzeko tokia.

Amnistiaren aldeko jaialdia frontoian maiatzaren 1ean

Euskadiko Amnistiaren Aldeko Batzordeak aurrera eramane nahi dituen jaialdi batzuen artean, Leitzako kasuari dagokionez maiatzaren 1ean (larunbata), herriko pilotalekuan, gaueko 11etan honako jaialdi hau

antolatu du: Herriko trikitalari gazteak, bertsolariak (Jon Sarasua, Jon Maia...), Anje Duhalde kantaria..

Liburuaren Eguna

Liburuaren Eguna dela eta, gaur eta bihar, liburutegian "Liburuaren 20.000 urteko historia" audiobisuala ikusteko aukera izango dute OHOkorde zikloko umeek, hau da, 3., 4. eta 5. mailakoak.

Federazio Koparen barne...

Lanbardo futbol zelaietan, apirilaren 25ean eta maiatzaren 2an, arratsaldeko 8etan, Aurrerak, Etxabakoitz eta Indarraren aurka jokatuko du. Txapelketa taldeak jokatzen ari da (Mendialdea, Lizarraldea, Zangotzaldea eta Erribera) eta talde bakoitzatik irabazle ateratzen direnen artean jokatuko dute lehen postua. Irabazlearentzat kopa eta 50.000 pezeta.

Aurrerako...

truk txapelketaren irabazleak Ignazio Azpiroz eta Karlos Agirre izan ziren, bigarrenak Inaki Salbarredi eta Jose M^a Razkin, hirugarrenak Jose Luis Hernandez eta Miguel M^a Lasarte eta laugarrenak Juan Bautista Razkin eta Patxi Olaetxea. Denetara 20 bikote.

FM
FOTO
MENA
ELIZONDO

Komuniotako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
**ORDU BATEZ
ERREBELATUAK**
ditugu

ADUR TABERNA

Pintxoak, kaxuelak eta bokatak

Tfnoa: 610864 • LEITZA

SAGASTI Jatetxea

Bokadilo goxoak eta
paregabeko bazkariak

Tfnoa: 610637 - LEITZA

IRAGARKI HAU 5.400 ETXETAN
SARTU DA
ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO

GAZTELU FONTANERIA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 510086
LEITZA

BAZTAN

“Nafarroaren Eguna” ospatuko da asteburu honetan

Baigorri eta Elizondoko neska-mutikoen arteko anaitasun bazkaria izanen da

JOSEBA IGARABIDE

Baigorriko Kultur As-
tearen barnean burutzekoa
da igande honetan “Nafa-
rroaren Eguna”.

Aurtengoan hamabortz-
garren edizioa betetzen du
eta mugaz bi aldetako nafa-
rren biltoki bihurtzen da
egun batez Baigorri. Hila-
ren 28an, berriz, Baigorri
eta Elizondoko eskolako
umeak anaitasun bazkari bat
eginen dute.

**Bertso saioa
maiatzaren 8an**

Amaiurko Kirol taldeak
antolatuta bertso saioa
burutuko da maiatzaren 8an,
gaueko 9,30etatik aintzine-
ra Elizondoko pilotalekuan.

Bertsolariak, Angel Mari
Peñagarikano, Manolo
Arozena, Jon Sarasua, An-
doni Egaña, Xebastian Li-
zaso eta Euzkitze izanen dira
eta Iñaki Muruak beteko du
gai-jartzailearen lana.



Bertizko Turismo konsortzioak bere lehen ekitaldien berri eman zuten Futures plangintzaren barnean KARMELE

**54 milioi inbertituko ditu aurten
Bertizko Kontsorzioak**

Bertizko Turismo Kon-
sorzioak 54 milioi inberti-
tuko ditu aurten zonaldeko
turismoa ezagutzera emateko
ekitaldietan.

Ekitaldi hauek, Turismo
Ministeritzaren Futures
plangintzaren diruaz la-
gunduak izanen dira. Era-
berean, Konsortzioak Na-

farroako Gobernutik eta
Europa Elkartetik (Leader
programaren bitartez) su-
bentzioa jasotzea espero du.

Aurtengoan, aktibitate
eskeintzaren zabaltzea,
aintzinako sukaldaritza be-
rreskuratzea eta komu-
nikabideetan promozio
kanpaina eginen dira.

W ttipi-flash

- 8.016** biztanle zituen Baztanek urte hasieran udal erroldaren arabera. Haue-
tatik 4.057 gizonezkoak
ziren eta 3.959 emaku-
mezkoak. 1992ko hilbel-
tzaren lehen egunean bai-
no 27 pertsona gehiago bizi
gara aurten.
- Elbeteako** ‘Serora etxea’
moldatzeko dirulaguntza
eskatu dio Udalak Nafa-
rroako gobernuari. Mol-
datu ondotikan, Santiago-
rako bidean doazen erro-
mesentzat ostatu emateko
erabiliko da etxea.
- Ikastaro** bereziak egoki-
tu zaizkio Baztaneri Nafa-
rroako gobernuak antola-
tzen duen kanpaina batean.
“Pertsona arteko harrema-
nak. Komunikazioa”,
“Lurreko dantzak (36
ordu)” eta “Astronomiaren
hastapenak” dira ikasta-
roen izenburuak.

 **ARMUA
Jatetxea**
Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI

 **ALBAITARITZA S.A.**
Aita Donostia 7 Tfnoa: 452111 - Faxa: 580980
ELIZONDO

 **TALLERES
ZALDAIN**
Santiago 71, ☎ 580166 - ELIZONDO

IPINGI ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO
**Arropak eta konplementoak
Opariak**

KASINO OSTATUA
Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO

San Martin eskolako ganaderoen ikastaroa bukatu da


Gasnari buruzko ikastaro berezia antolatua dago, bertzalde, maiatzaren 12tik 14ra

R. A.

Bazkari batekin eta titulo banaketarekin bukatu ziren Oronozko San Martin eskolan irailetik apirila bitarte burutu diren abeltzantza ikastaroak. Hemezortzi urtetik gorako 32 lagun aritu dira guzira eta orain, ikastaroa akabatu denean, Nafarroako Gobernutik dirua noiz bidaliko zai gelditu dira. Noiz arte? Hortxe dago kokka!

Baserritarrentzat inportanteak Inportantzia ez da bakarrik

dirulaguntzak lortzeagatik, baita ere ikaste beharrezkoa delako, eta elkarri entzunez ganaderoen artean erlazioa sortzen delako. Hortaz gai-



Gasnari buruzko ikastarora, Lezaun eta Idiazabalgo teknikoak etorriko dira.

Artxiboko argazkia

nera, astero egun batez ikustaldi edo bisita bat eginez, bertze lekutako ganaderoak nola ari diren ikustea ere beti onerako izaten da.

Gasnari buruzko ikastaroa

Maiatzaren 12, 13 eta 14ean "Gasna nola egin, nola kontserbatu eta nola

saldu" erakutsiko duen ikastaroa emanen da San Martin Eskolan Lezaungo irakasle batek eskainia.

Hortaz gainera, "gasna ona den edo ez jakiteko" (kata egiteko), hitzaldia eskeinin du Idiazabal ordezkari batek.

Ardi-ile moztea eta kontabilitatea Apirilaren 22an eta 23an,

bertzalde, ardi-ilea mozteko sistema berexi baten berri emanen da San Martin Nekazal Eskolan, Zelanda Berriko sistema edo 'sistema neozelandes' deiturikoa.

Bukatzeko, kontabilitate ikastaroan dabiltzanak maiatzaren 19an emanen diote akabera ikastaroari.

M^{ra} Dolores Mirana **TOPOGRAFA**
NEURKETAK · PLANOAK
 Lur neurketak
 Luberrak
 Plantazioak, etab.
 Santiago 68, 3. Esk. ☎ 580143 · ELIZONDO

KIWI BAZTAN, S. A.
FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN ZUZENeko SALMENTA
 MINDEGIA eta BULEGOAK:
 Sutegia Etxea
 31795 LEKAROTZ
 ☎ (948) 58 11 01
 Fax-a: (948) 58 11 01

FZ
FOTO ZALDUA
KOMUNIOAK
 Kanpaina berri honetan eskeintzen dizkizugun oroitgarrien artean baduzu non aukeratu.
Hartu ordua:
 ELIZONDO ☎ 580491
 DONEZTEBE ☎ 450364
EGUN HAUNDI BATETARAKO OROITGARRI ON BAT

BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia
 121 errepede nazionala, 54. km
 Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
- Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

URDAZUBI

Aste Sainduan turista aunitz herrian

Herriko 50 lagun, berriz, autobusean joan ziren Astigarragako sagardotegi batera

ALIZIA OLAIZOLA

Aste Sainduan eta bazko biharamoneraino jende aunitz izan da herrian, gehienak gipuzkoarrak eta bizkaitarrak. Logelak alokatzen dituzten etxeak denak bete ziren. Hostalak, Indiano-baita, Menta, Lapitxuri eta Beotxea berdin, Haitzuloak ere ikustatuak izan dire 2.200 turista izanez Aste Sainduan. Orain haitzuloetan txartel-degi berria ari dire egiten, sarrerak kobratzeko, eta osatu bat.



Kinto besten aldia ailegatu da. Goian 1956koak.

□ **Ortzegun Sainduan** 50 lagun izan ziren Urdazubitik autobusean Astigarra-

gako sagardotegi batean afaltzen, gero dantzaldia Modestorekin izan zuten

ederki pasatuz gaua.

Kinto besten aldia

Apirilaren 17an ospatu zuten 1966tik 1972rainokoek kinto besta saratar, zugarramurdiar eta urdazubiar gazte aunitz bilduz, Armuan eginez afaria eta dantzaldia.

Aurtengo lehen jaiotza

1991eko azaroaren 12an Mikel Zenoz Verdu jaio zen eta ordutik honat ez da jaiotzarik izan. Baino martxoaren 31an jaio zen Ana Mitxelena Irigoien.

ZUGARRAMURDI

Bisitari eta kotxez leporaino Aste Sainduan

KORO eta MARGARI

Berri guti azken hamabostaldi huntan. Aipagarriena Aste Sainduan izan den giroa: Marbella abuztu erdian iduri zuen (itsasoa eta bikinien faltan). Batere tronpatzeko beldurrik gabe erraten ahal da milaka pertsona ibili direla ortzegunetik astelehenerat. Hunek bizitasuna eta bertze aire bat ematen dio herriari bainan

bertzaldetik egun hauetan garbiago ikusi da asteburutan nabari den problema: kotxe gehiegi herrian barna.

Aparkaleku eder bat izanik ere jendeak plaza edo karreteran aparkatzen du; karreteran kotxeek ezin gurutzatu eta plazak duen itxura ederra galduz kotxe baizik ageri ez delakoz: peningarria. Modu berean lezeko bidea. Gutxi dire kasu



egiten diotenak leze aldera pasoa debekatzen duen kartelari: karrika mehar horie-

tan kotxeak goiti-behiti dabilta paseo lasai bat izan zitekeen bidea oztopatuz.

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

SASKAITZ
fontanería calefacción

Empresa colaboradora de
REPSOL
AUTANO

**Era guztietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

ERRATZU OKINDEGIA

zure eguneroko ogia

453168 - ERRATZU

SARA

Gaupasak izanen dira apirilaren 30ean eta maiatzaren 8an

‘Baldin Bada’ eta ‘Minxoriak’ lehen larunbatean eta ‘Negu Gorriak’ Herri Urrats gauean

MIXEL eta JACQUELINE

Baldin Bada eta Minxoriak izanen dira apirilaren 30ean gaueko Herri Urrats gaueko Herri Urrats gauean berriz (maiatzaren 8a) Negu Gorriak izanen da talde nagusia eta biharamonean Herri Urrats Senperen. Bakoitzaren laguntza beharrezkoa izanen zaiku.

Mus lehiaketak bururatu dira

Gazteen mus xapelketan hiru bikotek parte hartu zuten eta finaleraino Xabier Tapia-Bruno Martin eta Christophe Mariluz-Panpi Elizalde ailegatu ziren. Apirilaren 4ean iragan zen xapelketaren azken aitada Zuraideko Bergara ostatuan.



Jarrita bi xapeldunak, Irtzoki eta Bastre. Argazkia Logroñon hartua.

Helduen Xapelketa, berriz, Frantziako xapelketaren kondu burutu zen. Herriko Etxeko edantegian 23 bikote eta Portua jate-txean hamar bat bikotek

kanporaketak jokatu zituzten. Orotarat lau bikote ailegatu ziren kantonamenduko finaletaraino eta horietarik urrunena joan direnak Francis Petin eta J.M. Ondicola izan ziren. Finala haundia Pazko astelehenez iragan da

Arrangoitzeko trinketean.

Herriko Etxeko edantegiko lehiaketan aurtengo xapeldunak bi senpeter dira: Robert Iratzoqui eta Jean Baptiste Bastrek irabazi dute Jean Marc Aspirot eta Jean Claude Aspiroren aurka.

Ondotik 45 bat muszale bildu ziren bildots jate baten inguruan. Xapeldunak apirilaren 3 eta 4ean ateraldi bat egin zuten Errioxa eta Nafarroa alderat. Xapeldunekin batean bertze zazpi lagunek parte hartu zuten ateraldi hortan. Larunbatarekin “Heredad de Baroja arnotegiaren bisitatzera gonbidatuak ziren eta hori Donibane Lohitzuneko “Cava Arnotegia”ren bidez.

HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

*Michel de Kallin
Guzendicain*

Tfnoa: 59 54 25 19
64310 SARA



CRISTALERIA VELATE

- Kristaleria orokorrean
- Barnekaldeen dekorazioa
- Bainurako mobleak eta manparak
- Pareta ispiluak
- Bidriera artistikoak

Proiektuak eta aurrekontuak, konpromisorik gabe

Villaba Etorbidea 12 - IRUÑEA ☎ 132021
Merkatarien karrika 5 - DONEZTEBE ☎ 450991
Pedro Axular 1 - ELIZONDO ☎ 580825



**«ZALDUBI»
SUKALDE
MOBLEAK**

Altzari fabrikazioa eta
muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 58 05 62
IRURITA - BAZTAN

EZKONTZAK

Fermin Arroabarren Arregi eta **M^a Jesus Etxeberria Irazoki**, Berroeta eta Elizondokoa, apirilaren 3an.

Rufino Arrieta Zubieta eta **Ixabel Agirre**, Sunbilla eta Berrobikoa, apirilaren 17an.

JAIOTZAK

Virginia Aldea Hualde, Lekarotzen, martxoaren 23an.

Iraitz Erneta Ieregi, Elizondon, martxoaren 28an.

Ana Mitxelena Irigoien, Urdazubin, martxoaren 31an.

Julien Etxegarai, Saran, martxoaren 25ean.

Mikel Arriola Alaba, Lesakan, apirilaren 9an.

HERIOTZAK

Celedonia Lasarte Hernandorena, Zubietan, apirilaren 10ean, 78 urte.

M^a Luisa Tomasena Dendarieta, Azpilkuetan, apirilaren 3an, 84 urte.

Pedro Erasun Mindegia, Arizkunen, apirilaren 7an, 85 urte.

Blas Flamarique Armendariz, Elizondon, apirilaren 7an, 80 urte.

Paul Dutournier, Saran, martxoaren 27an, 83 urte.

Mayi Dibar, Saran, martxoaren 30ean, 97 urte.

Luixa Hirigoyen, Saran, martxoaren 27an, 79 urte.

Pedro Gortari Huarte, Sunbillakoa, apirilaren 14ean, 68 urte.



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

NARBARTEKO HERRIKO OSTATUA

MENUAK eta KARTA

San Andres 1, ☎ 592159 • NARBARTE

IRAGARKI HAU 5.400 ETXETAN
SARTU DA
ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO

KALITATEZKO ETXEBIZITZAK AUKERAKO PREZIOAN IGANTZIN

- 90 m² erabilgarriak, bi balkoi zabal bi aldetara zuzenduak eta bajeak.
 - 125 m² erabilgarri duten bi txalet, bakoitzak lau balkoi bere 70 m²tako bajerekin eta bakoitza 250 m² baino gehiagoko baratza edo jardinarekin.
- Kalefakzio indibidualaz hornituak. Sukalde, bainu eta balkoietan gres-a. Etxebizitzaren gainerako zola "elondo" zurezko tarimarekin estalia. Isolamendurako kalitate oneneko materialeak, pinturak eta ezaugarriak.

Aukerako prezioak kalitate haundiko etxebizitzentzat

Informazioa 270511 eta 258941 telefonoetan

Mindegia aita-semeak Doneztebeko jaialdian


Munduko bi errekor gainditzen saiatuko dira maiatzaren lehenean

Datorren maiatzaren leian, larunbata, eguerdiko 12,30etan munduko bi errekor gainditzen saiatuko dira Mikel eta Patxi Mindegia aita-semeak Doneztebeko frontoian.

Mikel Mindegiak, bere 44 urtetan hamar aldiz izan da Euskadiko txapeldun eta Donezteben 60 ontzako hogeitau enbor mozten saiatuko da. Lortuz gero, bere errekor pertsonala eta orain arteko munduko errekorra pasatuko lituzke.

Patxi semeak berriz, 18 urterekin bi aldiz izan da Euskadiko Kintopeko (sub-21) txapelduna. Bere lana hogeitau enbor kanaerdikoak (54 ontzakoak) moztea izanen da. Bere adinarekin ez du inork lan hau bete.

Baina ikuskizunaz gain norgehiagoka ere izanen da, biak batera hasiko baitira



Aitasemeen arteko norgehiagoka ikusgarria izanen da

beren lanetan, zeinek lehen moztu.

Egin behar duten lan hau

ez da egunero ikusten –sekulan ez, hobe erranda– eta jende ugari joatea espero da.

Jolas Kirolak

Herri Kirol finalak larunbat honetan

Larunbat honetan, apirilak 24, arratsaldeko 5etan burutuko dira Lakuntzan aurtengo Jolas Kirolak ekitaldien barnean jokaturako herri kirolen finalak.

Final hauek jokatu dutenak, B taldean eta infantil mailan Arantza eta Sunbilla izanen dira proba konbinatuan eta Ultzama eta Arantza sokatiran. Kadete mailan berriz, proba konbinatuan Basaburua eta Larraun izanen dira finalistak eta sokatiran Basaburua eta Arantza.

A taldean, Irurtzun, Lakuntza eta Andra Mariko taldeak jokatu dute finaletan, B taldeko klasi-fikatuekin batera.

Sokatira txapelketen egunak zehaztuak

Herri Kirol federazioak sokatira txapelketen egitaraua jakinarazi du.

Lehen mailako lehen proba 680 kilotakoa izanen da Sunbillan maiatzaren 8an.. 640 kilotako gizonen eta 520 kiloko emakumeen kanporaketak maiatzaren 23 eta 30ean eginen dira Elizondo eta Urdazubin eta finala Elizondon 30ean. 600 kilotan, Burlatan eta Almandozen izanen dira kan-

poraketak ekainaren 12 eta 13an eta finala Lesakan 20an. 560ko finala Amaiurren eginen da 27an.

Bigarren kategorian, berriz, 640 kilotako finala Lekunberrin maiatzaren 29an izanen da. 600 kilotako gizonen eta 480 kilotako emakumeen lehen kanporaketa Goizuetan burutuko da ekainaren 5ean eta finala Berriozarren ekainaren 19an.

Hamabostaldiko jokaldiak



Gure Txokoa Berako futbol taldea.

Erdikaldean hasi ondoren bigarren itzuli ona egiten ari da Gipuzkoako erregionaleko lehen mailan eta oraindik Preferentera igotzeko promozio fasean sartzeko aukerak baditu.

Zizarerik ezin erabili izatea arrantzarako.


Kexu daude arrantzaleak, maiatza bitarte zizarerik erabili ezin dutela eta. Diputazioaren arrazoiak ulergarriak dira baina betidanik amuzki hori erabili izan da gure inguruan.

Berako Toki Ona Institutoa:


«Bortzirietako beharretara irekiak gaude»

Hasi zenean Ofizialia Eskola, geroago Lanbide Eskola, gaur egun Institutoa

Eskola Mapa berriak hiru distritutan banatu berri du Nafarroaren iparraldea; Baztan, Bera eta Leitza. Aurrerantzean, bada, unibertsitatera bitarteko hezkuntza eskeintza osoa eskeiniko da hiru distrituotan, batxilergoa ere kontutan hartuz, alegia. Izan ere, orain arte zona mailan bakarrik Baztanen zegoen batxilergoa egiteko aukera.



LOGSEk ezarritako erreformen baitan funtzionatzen du Toki Ona Institutoa



TOKI ONA INSTITUTOA

92/93

- Lanbide Heziketa eta Batxilergoa
- 370 ikasle guzira
- 45 irakasle

Hogeitabortz urte hauen errepa-soak ikastetxearen eboluzioa erakusten digu, eta eboluzio horretan lehenengo pausuak 1967an eman ziren, eskolako atea lehen aldiz ikasleentzat zabaldu zirenean, alegia. Garai hartan Ofizialia Eskola zen. Maestria eta batxilergo ikasketak burutzeko orduan Irunera joan beharra baitzegoen. Hiru urte beranduago, 1970ean, ordurarteko Hezkuntza Plana aldatu egin zen,

eta Ofizialia eta Maestria eskola izandakoak Lanbide Eskola bihurtu ziren.

1985ean eskeintza zabaltzea lortuko da eta urte horretan Lanbide Heziketaren bigarren maila egiteko ez da Irunera joan beharrik izanen. Eboluzio honen azken pausua duela hiru urte eman zen. 1990an lanbide heziketaz gain batxilergo ikasketak burutzeko aukera ere zabalduko da eta ikastetxearen izena berriro egokitu egingen da egoera berrira; gaur egun Toki Ona institutua Bortzirietako Irakas-

kuntza Ertaineko zentroa dugu. Hauexek dira, beraz, 25 urteotako eboluzioaren ildo nagusienak.

Unibertsitatera bitarte Bortzirietan

Toki Onaren Instituto izae-rak hainbat berrikuntza ekarri dizkio ikastetxeari eta baita inguruari ere. Batetik, Bortzirietako ikasleek ez dute batxilergoa egiteko Bortzirietatik atera beharrik izanen orain arte gertatzen zen modura. Hortaz gainera, Toki Ona institutuan Lanbide Heziketa ere ema-

nen da, eta azkenik, Bortzirietako OHOk ikasleendako segida eskeintzen da unibertsitatera bitarteko prozesuan.

Zer ikas daiteke

Hamalau urtetatik 18 urtetara bi aukera daude: batetik batxilergoa eta bertzetik lanbide heziketa. Azken honetan hiru maila desberdin bereizten dira: Behe mailako Lanbide Heziketa (batxilergoa 1 edo 2. maila bukatu gabe); Erdi mailako Lanbide Heziketa (2. batxilergo urtea bukatuta) eta Goi mailako Lanbide Heziketa (batxilergo osoa bukatuta).

Lantegi eta enprekin elkarlanean

Toki Ona institutoak bere helburu eta ezaugarrien artean aipatzen duenez,



Batxilergoa ere bertan ematea izan da azken urteotako nobedaderik garrantzitsuena.

“ikasketa prozesuan kontutuan hartuko da institutoaren inguruarekiko integrazioa”. Eta zentzu horretan, azken hiru urteotan bereziki bi norabidetan jorratu da eginki-

zun hori. Alde batetik Lanbide Heziketako ikasleek Bortzirietako enpresetan egiten dituzte beren praktikak eta bertalde, institutoak berak duena enpre-

sen zerbitzuan jartzen du, batez ere enpresetako langileen birtziklaierako.

Joxemanuel IRIGOIEN

Jose Mari Irazoki, Institutoaren zuzendaria:

«Institutoa ingurunearen zerbitzuan ikusten dugu»

► *Etorkizunean nolako beharrei erantzun beharko die Lanbide Heziketak eta ikas-tetxeak orohar?*

►► Norbaitek estudio bategin beharko luke, jakiteko, etorkizuneko lanpostuak nolakoak izanen diren, ze behar dauden, ze lan klase izanen den Nafarroan

eta inguruko herrialdetan, baina batez ere Nafarroan. Nolabait errateko, Nafarroak dituen beharrak Nafarroak

berak ase beharko ditu. Goi mailako planifikazio hori ezin da egin distritu bat bakarrik kontutan hartuz, Nafarroa osoa kontutan hartu beharko litzateke. Hori ikasteko lekurik egokienean

«Etorkizuneko lanpostuak nolakoak izanen diren jakiteko estudio bat egin beharko litzateke»

montatu behar da Lanbide Heziketa hori eta kalitateari garrantzia haundia eman.

► *Eta espezializazio maila*

horretan Berako institutoari zer tokatuko litzaioke eskeintzea?

►► Hemen industria potentia dugu eta zentzu horretan industria mailako moduloak behar ditugu, baina beti ueste dut Nafarroa mailan beharko zela planifikatu. Instituto bezala hemengo gazteaz zertan prestatu behar diren pentsatu behar dugu eta horretan, batxilergoa bertan izatea oinarritzkoa da eta bertaldetik lanbide heziketa.



Jose Luis Etxegarai:

«PNVko alkate bakarra izanik, auniztan bakarrik gelditzen naiz eskualde mailako komisio eta bileretan»

Jose Luis Etxegarai Andueza Lesakako Nabaz auzoko Agortxeberri baserrian jaio zen duela 45 urte. «Laminaciones de Lesaca»ko langilea da. Orain sei urte, berak onartzen duenez, ustekabean lortu zuen alkatetza PNV alderdiarekin, "garai hartan kolore hagit ezberdineko Herriko Etxea baitzegoen". Geroztikan Lesakako alkatea da, azken legislaturan gehiengo osoarekin gainera



«Lesaka eta inguruko arazorik haundiena industriarena bada ere, ondarko egunetan notizi onak daude Laminaciones inguruan»

ttipi-ttapa. *Legislatura honen erdira iristen ari garenan, zer balorazio egiten duzu?*

Etxegarai. Lehenengo legislaturan hasitako zenbait obra aintzinerara doazi: kirol zonako terenoak erosi geni-

tuen eta orain lanean ari dira, menditan inbertsio terripleak egin ditugu ondar aldi honetan eta herria txukundu nahizik gabiltza urbanismo aldetik. Hemendik aurrera, Plan Trienal horretan sartzeko idea dugu. Hor baserri

auzotarako ura paratu, Frain auzorako bide dezentea egitea... sartuak daude.

ttipi-ttapa. *Momentu honetan, zein dira Lesakak dituen arazorik haundienak?*

Etxegarai. Lesakak inguruak dituen arazoak su-

fritzen ditu: industria, lanpostuak gutxitzen ari dira... Laminaciones nola geldituko den ez dago oso garbi, nahiz eta ondarko egunetan notizi onak dauden. Baina denbora berean konturatu gara ez

dela Laminaciones-en arazoa bakarrik, hor daude Berako fabrika ttikiak arazo larriekin.

ttipi-ttapa. *Inguruan PNVko alkate bakarra izateak zailtasunak sortzen al ditu inguruko herriekin batera eratzen diren komisi- sio, mankomunitate eta horrelakoetan?*

Etxegarai. Arazo ttiki bat- tzu sortzen dira. Alderdi bakoitzak bere taldeak egi- nak dituzte eta ni nahiko maiz bakarrik gelditzen naiz. Hasieran, pixko bat kezkatu nintzen asuntxo horrekin eta zenbaitetan rato txarrak pa- satu ere bai, baina orain ez zait askorik inporta.

ttipi-ttapa. *Oiartzungo mugan paratutako zerraku- rak zenbait kritika sortu ditu. Zeineriz pide jarraitu da lan hori egiteko?*

Etxegarai. Lesakako men- diak errepoplatzeko proiektu bat egin genuen, Diputa- zioak lagunduta. Baina konturatu ginen plantazio guzi horiek eginez gero, aziendak zer janik gabe gel- ditzten zirela. Gobernuari estudio bat egiteko eskatu genion, hori nola molda zi- tekeen argituz. Belasoro batzuk egiteko estudioa egin zuten eta proiektuaren ba- rrenean, artzaiekin solastu ondoren, Oiartzungo mu- gako itxidura agertzen zen. Gobernuak ez zuen arazo- rik paratu eta gainera %89ko subentziona eman zuen obra egiteko. Oiartzungo udaleko ordezkariekin zen- bait bilera egin ziren baina deus moldatu gabe. Obra-



«Alguazila euskalduna izanen dela garantia osoa dago»

ren plazoak bete behar zire- nez eta Herriko Etxean aho- batez onartu ondoren lane- kin segitu genuen. Gerozt- ikan, Diario Vascon artiku- lo hagitz gogorra agertu zen, astakeria haundi xamar- rak paratzen zituena eta jakin nuen Lesakako jendeak egindako deklarazioak zire- la. Ezin dut ulertu Lesakatik bertatik zergatik ahabatez botatutako gauza baten aur- ka dagozin botatu dutenak eurek.

Ingurugiro aldetik ez du problemikan, ehun metro- tik basurdeak eta horrelako animalientzako pasabideak egin baitira.

ttipi-ttapa. *Alguazilaren kargurako ez da euskara nahitaezko baldintza beza- la eskatuko...*

Etxegarai. Alguazila eus- karaz ongi mintzatzen dena behar du izan. Tribunalak,



«Oiartzungo zerrakuraren inguruan astakeri haundi xamar- rak agertu dira komunikabide batetan, Lesakako jendeak egindako deklarazioak gainera»

entrebista bat eginen dio eta beraz %100eko garantia dago euskalduna izanen dela. Halere, Lesakan bada jende aunitz euskaraz ongi mintzatzen dena baina exa- men idatzia ez lukeena pa- satuko. Horregatik ez da izanen eliminatorioa.

ttipi-ttapa. *Asiloaren egoeratik multa jaso du berriki Udalak. Zer egiteko asmoa dago asunto horre- tan?*

Etxegarai. Multa aspal- diko espediente batena da, 1988az geroztik bueltaka zebilena. Asilo berria egite- ko proiektua erredakzioan dago momentu honetan. Osasun Zentroaren ondoan eginen litzake eta oraingoa bota egin beharko da.

Testua: Aitor AROZENA
Arg: Miren Karnele TOLOSA

Etxebizitzak

• **Elizondon** 130m²tako pisu mobleztatua eta 25m²-tako garajea salgai. ☎ 580267 (1etatik 2etara).

• **Leitzan** pisua salgai. Sukaldea, 3 logela, egongela bainugela eta despentsa. ☎ 277531 (gauez).

• **Elizondon** pisutiki eta ekonomikoa alokatuko nuke. ☎ 580560.

• **Sunbillan** baserria alokatzen da, granja eta terenoarekin. ☎ 637306 (arratseko 8etatik aurrera).

• **Baztan-Bidasoa** inguruan baserria erosiko nuke. ☎ 943-427869.

• **Bera-Alkaiagan** pisua eta garajea salgai. ☎ 630552.

• **Beran** pisua salgai. ☎ 630272.

• **Elizondon** 70 m²ko pisua salgai. 7.200.000pzta. ☎ 581089 (9etatik aurrera).

Lana

• **Lana** egingo nuke errepartoan, 3.500 kilotik behitiko ibilgailuarekin edo nere kotxearekin. Larunbat eta igandea ere bai. ☎ 451521 (arratsetan).

• **23** urtetako ikasle batek asteburuetan eta udan lan eginen luke. Jatetxetan aritua. ☎ 453312 (Baztan).

• **Lan** egingo nuke ordu kontuan, edozein lan, asteburuetan ere bai. Lanean esperientzia badaukat. ☎ 451521 (Javier arratsetan).

Salerosketak

• **Simca 1200 NA-H** salgai. Merke. ☎ 630413.

• **Sukaldeko** mahaia, bi aulki eta bi taburete salgai. ☎ 631218 (arratsetan).

• **Donezteben** 104 m²ko bajera eta 198 m²ko baratzearekin salgai. ☎ 450115.

• **Ohatze** berria, 2 koltxoiekin salgai, 8.000 pezatan. Martinika, Errekondoa 1, I.D, Lesaka.

• **Bultaco Sherpa 250** motoa salgai, gutti ibilitakoa. ☎ 453141.

• **Gimnasia** egiteko bigarren eskuko bizikleta estatika erosiko nuke. ☎ 630421.

• **Puch Mini Cross 49cc** 74 truketua salgai 70.000 pezatan. Ongi dago. ☎ 610865.

• **Seat Ibiza Diesel** salgai, 5 urte. ☎ 610872.

• **Collie** zakurkumeak salgai. ☎ 634027.

• **2.000** teila berri salgai, prezio interesgarrian. ☎ 610654.

• **Jardineko** 6 aulki forjazkoak salgai. ☎ 637129.

• **Asto** bat eta astakume ar bat salgai. ☎ 510524.

• **Idazmakina** bat (Olivetti-Lettera 10) salgai, 3 urtetakoa salgai. ☎ 510132 (eguerditan).

• **Mastin** txakurkumeak salgai Portula etxean. Bera.

• **Sukalde** ekonomikoa ia berria salgai. Hergom markakoa eta 6 radiadore jartzeko modukoa. Erdi prezioan. ☎ 637129.

• **Komunio** mutil jantzi osoa salgai. Modu oso onean. ☎ 504492.

• **Zur** zaharrak, harri tallatu zaharrak, lurreko harri laukituak erosi nahi nuzke. Deitu jatorduetan ☎ 59542123 (Sara).

Denetarik

• **Beran** zeramika taile-rra klaseak ematen dira. ☎ 630227 (1,30etatik 3etara).

• **Etxeko sukaldea** la-bearekin interesatuko litzaiguke. ☎ 630286.

• **Boltsa** baten barnean giltza batzuk galdu dira Kanttonberrin. Aurkitu baldin baduzu ☎ 631188.

• **Land Rover** bat daukagu eta traktore txiki batengatik aldatzea gustatuko litzaiguke. Xorroxin irrattira deitu. ☎ 581226.

Harremanak

• **Elizondoko Ana** Biar-tolarentzat apirilaren 2an 11 urte betetzeagatik zorionak. Urdazubiko lehengusua Alizia, osaba-izeben partez.

• **Oitzko Aitor** Aristegi eta Iranzu Irisarriri zorionak bere ezkontzagatil, apirilaren 17an. S-O-S partez.

• **Zorionak** Pilar zure urtebetetzean (apirilak 13). Muxu haundi bat. Lagunak.

• **Goizuetako** Leire Al-sua eta Leitzako Izaskun Urrutiari zorionak zuen urtebetetzean. Ea ongi igarotzen dugun Oialumen egun berezi horretan. Kuadrilako lagunak.

• **Leitzako** Leire Billa-bonari: bere 5. urtebetetzean zorionduz eta besarkada bat eman bere guraso, ahizpa eta sendiaren partez.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE

HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

Tfnoa:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



• **MEKANIKA:** ibilgailu edo kotxeen mekanika, traktoreak, soldadura...

• **OIHANZANTZA** edo **FORESTALA**

• **NEKAZARITZA** eta **MEKANIKA**

• **OSTALARITZA, PUERIKULTURA**

Bi urtez. Eskolak, jantokia eta logelak ere badauzka.

Praktikak:

Aste bat eskolan eta bertzea, lantegietan praktikak egiten.

Nor matrikula daiteke?

OHO edo EGB egin duena, nahiz eta "Graduado Escolar" ez izan.

EUSKARAZ eta ERDARAZ

Hizkuntza: Euskara eta Ingelesa

BATXILERGOA EDOTA LANBIDE
HEZIKETA EGIN NAHI BALDIN
BADUZU... BERAKO

"TOKIONA" INSTITUTOAN



AURREINSKRIPZIOAK: Apirilaren 19tik Maiatzaren 14a arte.

**INFORMAZIOA: 630411
630450**





ASESORIA
ASEGUROAK
GESTORIA

M^o JOSE DEL MORAL ARIZTEGI

Gure Asesora ELIZONDOn

GESPAM, S. L.

- Nominak, TC₁ eta TC₂, erretentzioak, ziurtagiriak, kontratoak eta dirulaguntzak, lan inspektzioak...
- Informatizatutako kontabilitatea, itxiera kontablea, liburuen legalizazioa, analisi edo interpretazio kontablea...
- Deklarazioak (IVA, errenta, elkarteak) eta Haziendaren aintzinean tramiteak.
- Elkarteen Osaketa, lizentzia fiskalak, Erakunde Zentsuaren aintzinean tramiteak eta Erregistroak...
- Aseguro mota guztiak: kotxea, etxebizitza, merkatal etxea, industriar, bizitza...
- Ibilgailuen transeferentziak eta bajak, Garraio txartelak, gidatzeko baimenen berritzeak, ziurtagiriak, lizentziak...

MENDINUETA 12

ELIZONDO

Tfnoa eta Faxa: 452192

ALMACENES ETXANIZ, S.A.



Lesakako Iturria anaiak

IRUNen, Juan Arana, 3 - Tfnoa eta faxa: (943) 611767

*Apirilan oferta ugari
moble, grifo eta
osagarrietan*

*Gasoleo eta gas
kalefakzioen
instalazio presupuestoak
egiten ditugu*

Lesaka eta Berara zerbitzua egunero